

TOLOSA / Haurren irakur zaletasuna pizteko saioak eskainiko dira

Gurasoentzako tailerra Tolosako haur liburutegian burutuko da tolosa. Bularretik mintzora kanpainaren baitan, haurren irakur zaletasuna sustatzeko tailerra egingo da gurasoentzat Tolosako haur liburutegian. Eskolak sei urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduak daude. Otsailaren 18an, 19an, 25ean eta 26an izango dira klaseak Pello Añorgarekin, 15.00etatik 17.00etara. Bestalde, haurtzaindegi zerbitzua ere eskainiko dute doan. Kanpainaren sustatzaileek jakinarazi dute 20 lagunentzako tailerra izango dela gehienez.

Gai zerrendari dagokionez, lehenengo elkar entzuteko espazioa sortzen erakutsiko zaie, eta literatura egituren erabilpena erritualizatzen. Bestalde, kontakizunak, irudi liburuak edota amandre ipuinen arteko ezberdintasunak aztertuko dituzte. Gainera, irakurketa ozena egiten ere irakatsiko zaie. Azkenik, sehaska kantak, hitz jolasak eta poematxoak landuko dituzte.
>m.s.s.